

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

Ebazpena: 5/2018

Espedientea: 7/2013

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 28an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituenak, honako hau

ERABAKI DU

Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioan aurkeztutako eskumen-gatazkaren inguruan, O SArri haren hornitzaile GTG-k jasanarazitako eta azken horrek ZAEAn sartutako 2010eko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zergaren kuoten (53.995,43 euro) bilketa eta kobrantza egiteko eskumenari dagokionez. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan tramitatzen da, 7/2013 espediente-zenbakiarekin, Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela.

I. AURREKARIAK

1.- 2013ko otsailaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Ogasun eta Finantza Departamentuko Araugintza eta Aholkularitza Juridikoko zerbitzuburuaren idazkia sartu zen Arbitraje Batzordean. Horren bidez gatazka planteatu zuen Estatuko Zerga Administrazioan, O SArri haren hornitzaile GTG-k jasanarazitako eta azken horrek ZAEAn sartutako 2010eko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zergaren kuoten (53.995,43 euro) bilketa eta kobrantza egiteko eskumenari dagokionez, eta eskatu egin zuen, Ekonomia Ituna eta BEZaren araudia aplikatuta, deklaratu zedila GFA eskuduna dela ZAEAn bidegabeki sartutako kuotak biltzeko eta kobratzeko, eta kuota horien

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

zenbatekoa Gipuzkoako Foru Administrazioari transferitu behar zitzaiola, administrazio hori baita eskuduna kuota horiek ordainarazteko, Ekonomia Itunaren 27. artikularen arabera.

2.- Espedientetik honako egitate eta inguruabar esanguratsu hauek ateratzen dira, gatazka ebazteko:

- a) O SA sozietateak helbide fiskala Gipuzkoan zeukan, eta 2009ko ekitaldian bere eragiketa-bolumena ez zenez 7 milioi eurokoa baino handiagoa izan, 2010eko ekitaldian GFAn bere balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioak aurkeztu zituen, GTG hornitzailearekin egindako eragiketengatik jasandako kuotak barne. Zenbatekoa 53.995,43 € zen.
- b) GFAko Zeharkako Zergen Zerbitzuak prozedura bat hasi zuen 2010eko ekitaldiko autolikidazioak egiaztatze, zehaztu ahal izateko ea erakundeak jasandako BEZaren kuotak bidezkoak ziren ala ez. 2011ko abuztuaren 22an ebazpen-proposamena egin zuen, eta erabaki zuen ez zuela bidezkoa GTG-k egindako BEZaren jasanarazpena, BEZari buruzko 102/1992 Foru Dekretuaren 84. artikuluko 2. apartatuaren arabera uste baitzuen erakunde horrek zergaren aplikazio-lurraldean ez zeukala establezimendu iraunkorrik O SAri egindako ondasun-emateetan zuzenean esku hartzeko, eta ondorioz, jasandako kuotak kengarriak zirenik ukatu zuen.
- c) GFaren ebazpen-proposamenaren aurkako alegazioetan, O SAK hau argudiatzen zuen:
 - Gipuzkoako Foru Ogasunak ukatzen du GTG-k jasanarazitako eta erakundeak jasandako BEZaren 53.995,43 €-ko zenbatekoaren itzulketa, bere ustez Alemaniako hornitzaile horrek bere eragiketak zergaren aplikazio-lurraldean ez zituelako egin ondasun-emate horietan zuzenean esku hartu zuen establezimendu iraunkor baten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

bidez.

- «GTG-k BEZa jasanaraztea bidezkoa den ala ez (...) auzi eztabaidagarria da, samur esatearren; izan ere, egitatezko auzi bat da zehaztea ea sozietate horrek egitura nahikorik daukan (...) ulertu ahal izateko BEZa jasanarazi ahal izateko legezko baldintzak betetzen dituela ala, berriz, BEZik gabe fakturatu behar duen eta, subjektu pasiboaren inbertsioaren mekanismoa aplikatuta, salgaiaren hartzaileak bere buruari jasanarazi behar dion eragiketaren BEZa».
- Prestasunez eta arau-eskakizun bat ere urratu gabe jokatu duenez, ezin du kalterik jasan bere hornitzaileetako batek ustez BEZaren araudiaren aurka jokatu duelako. Alemaniako hornitzaile horrekin merkataritza-harremanak hasi zituenetik, BEZa jasanarazteko fakturak jaso ditu, hala egiteko gai delako, eta inoiz ere ez du planteatu jasanarazpen hori bidezkoa denik. Bere ustez, halaber, ez da bere egitekoa egiaztatzea ea BEZarekin fakturatzen dioten hornitzaile guzti-guztiek araudiak aurreikusten dituen baldintzak betetzen dituzten, eta hornitzaile horietako baten jokaera desegokiak ez du berarentzat ondoriorik ekarri behar. Aipatu egiten du Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko EB/282/2011 Betearazpen Erregelamendua, BEZaren sistema erkideari buruzko 2006/112/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen; Erregelamendu horren 53. artikulua ezartzen duenez: «(...) faktura egiten bada establezimendu iraunkorraren estatu kideak BEZaren ondorioetarako emandako identifikazio zenbakiarekin, ulertuko da establezimendu horrek parte hartu duela estatu kide horretan egindako ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan, salbu eta kontrakoa frogatzen bada».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

- Administrazioarentzat ez da inolako kalte ekonomikorik sortu, Foru Ogasunaren ustez GTG-k ZAEAn bidegabeki sortutako BEZa ZAEAn sartu zelako; beraz, «sortu ahal izan den kalte bakarra da kopurua ZAEAn sartuta dagoela, eta aldiz, jasandako kuoten kenkaria Gipuzkoako Foru Ogasunari eskatu zaiola, baina auzi hori (...) ezin zaio inola ere egotzi subjektu pasiboari».
 - «Ustez GTG-k 2010ean BEZa bidegabeki jasanarazi izana konpontzeko, hornitzailearekin harremanetan jarri da, eskatzeko ekitaldi horri dagozkion fakturak zuzen ditzala; hornitzaileak ezetz erantzun dio, bere ustez, ZAEarentzat sozietate hori subjektu pasiboa delako eta, beraz, fakturetako BEZa behar bezala jasanarazi eta sartu delako».
 - Administrazioak bere administratuen alde behar bezala jokatu balu, Estatuko Zerga Administrazioak ofizioz, edo Gipuzkoako Foru Ogasunak eskatuta, zehaztuko luke ea GTG-k BEZa bidegabeki jasanarazi zuen, Gipuzkoako Foru Ogasunak uste duen eran; adierazten duenez, erabat babesik gabe dago, ustez bere hornitzaileetako batek zuzenbidearen kontrako jokaera izan duelako: «Gutxienez, Gipuzkako Foru Ogasunak 2010ean jasandakoa baino BEZ kopuru txikiagoa itzultzea erabaki du, eta bere erabakiak ez du GTG zuzenean ukitzen edo behartzen; azken horrek, une batean ere errekerimendurik egin ez zaionez, ez du onartzen Gipuzkako Foru Ogasunaren ondorioa, eta horregatik (...) ezin ditu berreskuratu iraganean jasandako kuotak eta egoera ezingo du etorkizunean onbideratu».
- d) 2011ko urriaren 11ko erabakian, GFAko Zeharkako Zergen zerbitzuburuak ezetsi egin zituen aurkezturiko alegazioak eta ukatu egin zuen erakundeak jasandako BEZaren kenketa, bere ustez, GTG-k bere

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

jarduerak BEZaren aplikazio-lurraldean ez zituelako egin eragiketa horietan zuzenean esku hartu zuen establezimendu iraunkor baten bidez, BEZari buruzko 102/1992 Foru Dekretuaren 84.Bi artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, honakoa kontuan hartuta:

- 1) Erakundearen argudioek sendotu egiten dute GTG-k establezimendu iraunkorrik ez daukalako ustea; izan ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak zehazten duenez, horretarako gutxieneko iraunkortasun bat eduki behar da eta enpresa-jarduera antolatzeko bitarteko batzuk eduki behar dira, eta ez da nahikoa aktibo higigarri batzuk beste estatu kide batean mantendu eta erabiltzea.
 - 2) Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko EB/282/2011 Betearazpen Erregelamenduaren 53. artikulua dioenez, faktura egiten bada establezimendu iraunkorren estatu kideak BEZaren ondorioetarako emandako identifikazio zenbakiarekin, ulertuko da establezimendu horrek parte hartu duela estatu kide horretan egindako ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan, salbu eta kontrakoa frogatzen bada; bada, horri buruz zera dio: «Hain zuzen ere, Zerbitzu honen ustez, frogatuta dago ez dagoela GTG-ren establezimendu iraunkorrik, eta halakorik badagoela uste izango balitz ere, establezimendu horrek ezingo luke zuzenean esku hartu O SAr egindako ondasun-emateetan».
- a) 2011ko azaroaren 22an, O SAK ZAEAr eskatu zion erakundeak jasandako eta GTG-k Estatuko Administrazioan sartutako BEZaren kuotengatik bidegabeki egindako sarrerak itzultzeko.
 - b) ZAEAk bidegabeko sarreren itzulketa kontuan hartu zuen hornitzailearen BEZaren autolikidazioa zuzentzeko eskari gisa, eta egiaztapen-prozedura bat hasi zuen. Prozedura horretan informazioa eskatu zion GTG-ri. Azken horrek aurkeztutako dokumentazioaren artean 2012-01-23ko idazki bat

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

zegoen; idazki horretan ordezkariak, PCK, zera zioen: «Espainiak eta Alemaniak ezarpen bikoitza saihesteko sinatutako Hitzarmenaren 5.1 artikulua arabera, GTG-k Espainian duen ordezkartza-bulegoa establezimendu iraunkorra da BEZaren ondorioetarako, jatorrizko Alemaniako enpresarako prestaketa-jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko baliabide materialak eta giza baliabideak dauzkalako» (III. ERANSKINA). Hala ere, GTG-k ez zuen aurkeztu jasanarazitako kuota horiek agertzen diren BEZaren erregistro-libururik, ezta fakturen kopiarik ere, ZAEAk horiek aurkezteko eskatu zion arren.

- c) 2012ko martxoaren 13an, ZAEAk eskatutako itzulketa ezesteko proposamena egin zuen, eta GTG-k egindako jasanarazpena zuzentzat jo zuen; izan ere, haren ordezkariak esandakoak kontuan hartuta, Alemaniako sozietateak Espainian BEZaren ondorioetarako establezimendu iraunkor baten bidez jardun zuen (3. dokumentua). Eta bestalde, ezin zen ondorioztatu jasandako kuotak GTG-k sartu zituenik, hark ez zituelako aurkeztu BEZaren erregistro-liburuak, O SArri jasanarazitako BEZean zuzentzeko eskatzen ziren fakturak sartuta zeuden ala ez egiaztatzeko ZAEAk eskatzen zituen horiek, alegia.
- d) 2012ko martxoaren 28an, O SAK alegazioak aurkeztu zituen ZAEAn, bidegabeko sarrerak itzultzeko egin zuen eskaria ezesteko proposamenaren aurka.
- e) ZAEAREN erantzunik gabe sei hilabete igaro ostean, O SAREN ordezkariak 2012ko azaroaren 9an Foru Ogasunean «GTG-k jasanarazitako BEZaren itzulketa ZAEAk ukatzeari dagokion administrazio-egintza irmo bihurtu izanaren jakinarazpena, Arbitraje Batzordean tramiteak hasteko» izeneko agiria aurkeztu zuen, eta zera azaldu zuen: «2007ko uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren, tributu-kudeaketa eta -ikuskaritzako jardun eta prozedurei buruzko eta tributuen aplikaziorako prozeduretako arau erkideak garatzeko erregelamendu orokorra onartzen duenaren 128.4

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

artikuluaren ezarritako dagoenaren arabera, 2012ko irailaren 28an sei hilabete igaro direnez alegazioak aurkeztu direnetik, administrazioaren isiltasunez uziak (...) ezetsi direla ulertzen da»; beraz, «eta ordezkatuak alegazioak ezetsitzat jo direnetik hilabete epean errekurtsorik aurkeztu ez duenez, administrazio-egintza irimo bihurtu da, Gipuzkoako Foru Ogasunak hala eskatzen baitzuen 53.995,43 € itzultzeko eta Arbitraje Batzordean prozedura hasteko»; horren guztiaren arabera GFari eskatzen dio «GTG-k jasanarazitako 2010eko BEZ (...) itzultzea erabaki dezala, ZAEAk itzulketa ukatzeko emandako ebazpen-proposamena irimo bihurtutakoan Arbitraje Batzordean tramiteak hasi ahal baitira».

- f) GFAk erakundearen jakinarazpen-datatzat hartu zuen « *bere iritziz Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen dituzten [zituzten] egintzak* » jakin zituen eguna (2012ko azaroaren 9a), eta horrenbestez data horretatik aurrera zenbatu zuen bi hilabete gehieneko epea, Estatuko Administrazioaren inhibizio-errekerimendua egiteko (EIABEren 13.1 artikulua). Horregatik, 2012ko abenduaren 17an ZAEari jakinarazi zion inhibizio-errekerimendua, O SARI GTG hornitzaileak jasanarazitako eta Estatuko Administrazioan sartutako 2010eko BEZaren kuotak biltzeko eta kobratzeko eskumenari buruz; halaber, sartutako zenbatekoa transferitzeko eskatu zion (6. dokumentua).
- g) ZAEAk jasotako errekerimenduari erantzun ez zionez, GFAk 2013ko otsailaren 21ean jakinarazi zion Arbitraje Batzordean gatazka planteatzea erabaki zuela auzigai den eskumenari buruz.
- h) 2013ko uztailaren 3an, ZAEAk ukatu egin zuen bidegabeko sarreren itzulketaren eskaria, O SAK aurkeztutakoa (BEZaren autolikidazioaren zuzenketa).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

3.- Bere planteamendu-idazkian, GFAk onartzen du Arbitraje Batzordeak eskumena duela gatazka ebazteko, eta onargarritasunerako beharrezkoak diren baldintzak egiaztatuta daudela ulertzen du. Eta gatazkaren funtsari dagokionez, Ekonomia Itunaren 27.Bat.Hirugarrena eta Laugarrena artikuluen eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoan BEZa arautzen duenaren 84.Bat artikuluen arabera, Foru Aldundiak uste du eskuduna dela auzigai diren eragiketetan sortutako BEZaren ordainarazpenerako, honako hau argudiatuta:

- «a) Gatazka honen xede diren eragiketetan ez du esku hartu hornitzailearen establezimendu iraunkorrik; beraz, BEZaren araudia aplikatuta, hornitzaileak egindako barneko emateetan aintzat hartu behar da subjektu pasiboaren inbertsioa, 102/1992 Foru Dekretuaren 84.Bat artikuluan aurreikusita dagoena. Beraz, (...) O SA erakundeak jasaten duen eta GTG-k jasanarazten duen BEZa ez da kengarria (bigarren alegazioa).
- b) O SAK aurkeztutako bidegabeko sarreren itzulketa ezesteko proposamenean, Estatuko Administrazioak ez du aztertzen gaiaren funtsa, hau da, auzitan jarritako eragiketetan establezimendu iraunkor batek esku hartu zuen ala ez; besterik gabe, eskatutako itzulketa bidegabe deklaratu zuen, BEZaren araudiak eta bidegabeko sarreren itzulketaren araudiak eskatutako baldintzak ezin izan direlako egiaztatu, GTG hornitzaileak ez duelako bete ZAEAk egindako eskaria, dokumentazioa aurkeztekoa». GFaren ustez, «deigarria da ZAEAk berak onartzea GTG hornitzaileari egotzi ahal zaion urraketa bat dagoela, eta urraketa horretatik onura ateratzen duela, ez duelako [diolako] uzten (...) informazioa eskuratzen, zerga-arloko ordenamendu juridikoaren urraketarik egon den zehazteko –aztertu eta, bidezkoa izanez gero, zuzentzeko– beharrezkoa den arren. Are zorrotzago, ahal bada, kontuan hartuta hainbat Administrazio ukitzen direla, Ekonomia Itunaren 4.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

Artikuluan jasotzen den lankidetzaren printzipioa aplikatuta» (hirugarren alegazioa).

- c) Auziaren funtsa da zehaztea ea GTG hornitzaileak O SArri 2010eko ekitaldian fakturatutako eragiketetan establezimendu iraunkor batek, hau da, hornitzaileak Espainian daukan ordezkari-bulegoak esku hartu zuen; hori zehazteko, beharrezkoa da «argitzea ea eragiketa horietan hornitzaileak bulegoa kudeatzeko eta zuzentzeko ahaldundutako pertsonak esku hartu duen ala ez».
- d) GFaren ustez 2010eko ekitaldi egindako eragiketei ezin zaie aplikatu Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko EB/282/2011 Betearazpen Erregelamenduaren, EBAOn argitaratu eta hogeitun eguneko epean indarrean jarri zen horren 53.2 artikulua ezartzen duena; artikulua horren arabera: «(...) faktura egiten bada establezimendu iraunkorraren estatu kideak BEZaren ondorioetarako emandako identifikazio zenbakiarekin, ulertuko da establezimendu horrek parte hartu duela estatu kide horretan egindako ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan, salbu eta kontrakoa frogatzen bada».

Hortik aurrera, Foru Aldundiak dio ez dituela auzitan jarri nahi hornitzaileak Marbellan daukan bulegoko ordezkariak orokorrean daukan ahalmenak; aitzitik, ukatzen du ordezkari horrek auzigai diren eragiketetan esku hartu duenik; ukapen hori honako gogoeta hauetan oinarritzen da:

1.) GTGk harreman komertzialetan O SArekin izandako jarrera egiaztatzen duten agirietatik hau erator liteke:

a) Salgaiak Bartzelonatik O SArri Gipuzkoako egoitzara garraiatzen dira (10. dokumentua);

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

b) Fakturretan ezartzen denez, ordainketa-baldintzak eta produktuen ematea Alemaniako enpresak ezarritako baldintza orokorren eta Alemaniako zuzenbidearen mende daude (11. dokumentua);

c) GTG-k 2009az geroztik ez dauka langilerik Espainiako lurraldean, eta PC jauna Marbellako bulegoan administratzaile eta langile bakar agertzen da (12. dokumentua).

Foru Administrazioaren iritziz, dokumentazio horrek eragotzi egiten du zehaztea ea ordezkartza-bulegoak esku hartu zuen eztabaidagai diren eragiketetan, kontuan hartuta Batasuneko jurisprudentzia (adibidez, 1985eko uztailaren 4ko epaia, Berkholz, 168/84 auzia). Horren haritik, baliabide materialak eta giza baliabideak eduki behar dira, eta gainera, baliabide horiek edukitzeak esan nahi du nolabaiteko lan-banaketa bat egon behar dela, baliabide horiek lan horrekin lotuta egon behar direla modu iraunkorrean, eta berarena ez den beste jurisdikzio batean ezartzen den enpresaburuak asmo iraunkorra izan behar duela. Zergen Zuzendaritza Nagusia, ildo beretik, adibidez, 2011ko urtarrilaren 28ko V0139-11 kontsulta loteslean, ordezkartza-bulegoak, jatorrizko enpresaren mendeko bulego izanagatik, establezimendu iraunkortzat hartzearen aurka agertzen da, C-168/84, Berkholz, edo C-260/95, DFDS epaiak aipatuta: «Planteamendu horri jarraikiz, kontsulta egiten duen ordezkartza-bulegoa ez da establezimendu iraunkorra, zerga horren aplikazio-lurraldean Espainiako balio erantsiaren gaineko zerga aplikatzeari dagokionez». Irizpide hori azaroaren 7ko V2669-11 eta uztailaren 4ko V1319-06 kontsulta lotesleetan errepikatzen da.

2.) Soil-soilik orientazio gisa, gatazka honi aplikatu ezinekoa dela jakinik, GFAk Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko EB/282/2011 Beteazpen Erregelamenduaren 53.2 artikulua ezartzen duena aipatzen du: «Establezimendu iraunkorraren baliabideak administrazio

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

lan osagarriak egiteko bakarrik erabiltzen badira –kontabilitatea eramateko, fakturatzeko eta kredituak kobratzeko–, ez da ulertuko baliabide horiek erabili direnik ondasun-emate baten edo zerbitzu-prestazio baten helburuetarako (...). (Laugarren alegazioa).

«e) Arestian esan den guztiarengatik, ezin da egiaztatu GTG-k Espainian – zehazki Marbellan– daukan ordezkaritza-bulegoak gatazka honen xede diren eragiketetan esku hartu duenik. Beraz (...), eragiketa horietan bidezkoa da 102/1992 Foru Dekretuaren 84. Bat.2.a) artikuluan ezarritako subjektu pasiboaren inbertsioa, eta eragiketa horiei dagokien BEZa Administrazio honetan sartu behar da, Ekonomia Itunaren 27. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera (...).».

4.- 2015eko irailaren 30ean egindako bileran, Arbitraje Batzordeak gatazka tramiterako onartzea erabaki zuen, eta gatazkaren planteamenduaren berri eman zion ZAEARI, EIABEren 16.2 artikulua arabera, eta hilabeteko epea ezarri zuen alegazioak aurkezteko; alegazioak 2015eko azaroaren 6an aurkeztu zuren, idazki baten bidez. Idazki horretan Estatuko Administrazioak, gatazka ez onartzeko arrazoi bakarra azaltzen du, Arbitraje Batzordeak ez duela eskumenik, alegia. Auziaren funtsari dagokionez, ZAEAK, subsidiarioki eta sintesi modura, zera alegatzen du:

a) Bere ustez aplikatu ahal den araudia aipatu ostean (abendua 28ko 37/1992 Legearen, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoaren 84. eta 69.Hiru artikulua), Zergen Zuzendaritza Nagusiaren V 2670-11 kontsulta loteslea eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia barne, zeinaren arabera establezimendu iraunkorra egon dadin beharrezkoa baita egitura egokia egotea autonomia maila nahikoa duten giza baliabideei eta baliabideei teknikoei, propio edo azpikontratatuiei dagokienez, honakoa dio: «Irizpide hori bera bultzatu du Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko (EB) 282/2011 Betearazpen Erregelamenduak (...) 53.1 artikuluan. Horren arabera: 1. 2006/112/EE

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

Zuzentarauaren 192.bis artikulua aplikatzeko, kasu honetan, subjektu pasiboaren establezimendu iraunkorra bakarrik hartuko da kontuan: esku-hartzen duen ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak burutzea ahalbidetuko dien giza baliabideek eta bitarteko teknikoek eratutako egitura egoki bat nahiko iraunkortasunez duenean».

- b) Bestalde, jardueraren egoitza ez den establezimendu iraunkor batek eragiketa batean noiz esku hartzen duen zehazteko, 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduari jarraitu behar zaio. Erregelamendu horren 53.2 artikulua dioenez, «Subjektu pasibo batek establezimendu iraunkorra badu BEZa zor den estatu kideko lurraldean, ulertuko da establezimendu horrek ez duela eskurik hartzen ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan 2006/112/EE Zuzentarauaren 192.bis artikulua b) letran jasotako zentzuan, non eta subjektu pasiboak ez dituen baliatzen establezimendu iraunkorraren baliabide tekniko eta pertsonalak zergapetutako ondasun-ematearekin edo zerbitzu-prestazioarekin datozen bestelako eragiketak estatu kide horretan egiteko, emate edo prestazio hori egin baino lehen edo egitearekin bat. Establezimendu iraunkorraren baliabideak administrazio lan osagarriak egiteko bakarrik erabiltzen badira –kontabilitatea eramateko, fakturatzeko eta kredituak kobratzeko–, ez da ulertuko baliabide horiek erabili direnik ondasun-emate baten edo zerbitzu-prestazio baten helburuetarako. Hala ere, faktura egiten bada establezimendu iraunkorraren estatu kideak BEZaren ondorioetarako emandako identifikazio zenbakiarekin, ulertuko da establezimendu horrek parte hartu duela estatu kide horretan egindako ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan, salbu eta kontrakoa frogatzen bada».

Dioenez, halaber, «GTG sozietateak Espainian establezimendu iraunkorra dauka», erakunde horren ordezkariak adierazitakoak kontuan hartuta, eta puntu hori GFAk ez du auzitan jartzen. Lehenago aipatu diren artikuluetan ikusi denez, kasu zehatzean BEZaren subjektu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

pasiboa nor den zehazteko, GTG-ren establezimendu iraunkorrak auzigai diren eragiketetan esku hartzen duen ala ez ezarri behar da. 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 53.2 artikulua ezartzen duenez, establezimendu iraunkorraren esku-hartzea egoteko, ondasun-emateak burutzea ahalbidetzen dioten giza baliabideak eta bitarteko teknikoak erabiltzea beharrezkoa da.

Horri dagokionez, ondorengo alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

1. GTG-k GFARI aurkeztu dizkion fakturretan «Espainiako ordezkari-tzabulegoa» ageri da, eta azaltzen den helbidea Marbella (Malaga) da. Sozietatearen harremanetarako datuei dagokienez, (...) telefono-zenbakia eta (...) fax-zenbakia agertzen dira, biak ere Malagakoak. Bestalde, harremanetarako helbide elektronikoa (...) GTG-ren Espainiako ordezkari-tzabulegoarena da;
2. GTG sozietatearen ordezkariak azaldu zuenez, zergaren aplikazio-lurraldean eragiketak egin zituen establezimendu iraunkor baten bitartez, BEZaren ondorioetarako, eta O SAK eskatutako autolikidazioaren zuzenketaren aurka zegoen (laugarren alegazioa).

5.- 2015eko abenduaren 11n GFARI jakinarazi zitzaion amaitutako espedientea agerian jarri zela, EIABEren 16.4 artikulua araberan, eta hilabeteko epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko. Eskatutako luzapenaren ostean, alegazio horiek 2016ko urtarrilaren 21ean aurkeztu ziren, eta GFARI aurka egin zion Estatuko Administrazioak lortu nahi zen onartezintasunari (lehenengo alegazioa). Salatu zuenez, ZAEARI urratu egin zuen Ekonomia Itunaren 66.Bi artikulua, 2013ko uztailaren 3an, gatazka planteatu eta lau hilabete baino gehiago geroago, O SAK aurkeztutako sarrera bidegabeen eskaria (autolikidazioa zuzentzea) beren-beregi ezestea erabaki baitzuen. Bere iritzian, erabaki hori indargabetu beharrezkoa da, Arbitraje Batzordean gatazka bat tramitatu bitartean Itunaren Legearen 66.2 artikuluan jasotako agindu bat ez

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

betetzeari buruz Auzitegi Gorenak 2010eko apirilaren 21ean emandako epaiaren arabera (152/2009 errekurtsua). Auzitegi Gorenak hau dio 5. Oinarri Juridikoan: «*Baliteke Batzordeak horregatik baliogabetzea gatazka planteatu osteko jardunak...*». (Bigarren alegazioa).

Auziaren funtsari dagokionez, GFAk hauxe argudiatzen du: Estatuko Administrazioaren ustez, 2011n indarrean jarri zen Kontseiluaren 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 53.2 artikuluan jasota dagoen presuntzioa aplikatu ahal da, eta ezin zaio aplikatu aztergai dugun 2010eko ekitaldiko BEZaren kuoten gaineko auziari.

Foru Aldundiak dioenez, ZAEAk bere interpretazioa aldezteko zera adierazten du:

- 1) GTG hornitzaileak aurkeztutako fakturretan «Espainiako ordezkari-tzabulegoa» inskripzioa agertzen da, Marbellako IFZarekin eta helbidearekin, telefono-zenbakia, fax-zenbakia eta helbide elektronikoa barne.
- 2) Hornitzailearen ordezkariak azaldu zuenez, zergaren aplikazio-lurraldean eragiketak egin zituen establezimendu iraunkor baten bitartez, eta O SAK eskatutako autolikidazioaren zuzenketaren aurka zegoen.

Horri dagokionez, GFAk dioenez, GTG hornitzailearen ordezkariak berak, ZAEAn erregistratutako idazki batean, hauxe onartu zuen: «Espainiako ordezkari-tzabulegoaren jardura da, besterik gabe, informazioa biltzea, publizitatea egitea, informazioa ematea edo jatorrizko enpresarentzat jardura osagarriak edo prestaketakoak egitea (...)».

Horrek esan nahi du ez dela agertzen Foru Aldundiak gatazka planteatzen bulego horrek O SArekin egindako eragiketetan zuzenean parte hartzen duela ulertzeko azaldu zuen funtsezko baldintza, eta zuzenbidearen araberkoa dela

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

109/92 Foru Dekretuaren, BEZari buruzkoaren 84.Bat.2. Artikuluko a) apartatuan jasota dagoen subjektu pasiboaren inbertsioaren mekanismoa.

Gainerakoan, bere planteamendu-idazkian azaldutako argudioak berresten ditu (hirugarren alegazioa).

6.- 2015eko abenduaren 17an, espedientearen berri eman zitzaion, eta ZAEAk ez zuen azken alegaziorik aurkeztu.

7.- Ageri denez, 2015eko abenduaren 10ean espedientea jakinarazi zitzaion O SAri, baina horrek ere ez zuen alegaziorik aurkeztu.

8.- Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritz tramitatu da prozedura.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Xedearen zedarriketa negatiboarekin hasita, komenigarria da zera aurreratzea: eskumen-gatazka honen gaia ez da, zuzenean, BEZaren itzulketa, O SAK eskatu duena eta aurka dauden bi Administrazioek ukatu dutena. Dena dela, gogoan izan behar da zergapekoarentzat jokoan dagoela BEZaren kenkaria edo itzulketa, zergadunaren ustez horretarako eskubidea baitu, eta horren haritik, kenkaria eta, hala badagokio, itzulketa, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunaren neutraltasunaren funtsezko atala da, zeinak subjektu pasiboari aukera ematen baitio bere kargapeko eragiketarako erabilitako ondasun eta zerbitzuen erosketan jasandako kuotak berreskuratzeko.

Gatazka honetan eskatzen zaigu erabakia har dezagula, BEZa itzultzeari uko egiten dioten Zerga Administrazioetatik zeinek daukan eskumena Alemaniako GTG sozietatearen eta Espainiako O SA sozietatearen artean 2010eko ekitaldian egindako eragiketei dagokien zerga biltzeko, GFaren ustez,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

Alemaniko hornitzaileak bidegabeki jasanarazi zituelako eta bidegabeki sartu zituelako ZAEAn; eta horretarako, zehaztu behar da ea eragiketa horietan Alemaniako sozietateak Espainian daukan establezimendu iraunkor batek esku hartu duen ala ez.

Hala ere, Arbitraje Batzorde honek egiaztatu behar du ebazteko eskumena duela, ebazteko aurretiazko baldintza gisa; horrenbestez, hasteko, argitu behar dugu ZAEAk gatazka onartzearen aurka jarritako eragozpena, ustez Arbitraje Batzordeak erabakitzeke eskumenik ez duelako jarritakoa, hain zuzen ere.

2.- Hain zuzen ere, ZAEAk ez du auzitan jartzen, EIABEren 13.1 artikulua onorioetarako, kasu honetan nahikoa al zen bidegabeko sarreren itzulketaren eskaria ezesteko proposamena, O SAK eskatu ziona, GFAk uler zezan Ekonomia Ituneko lotura-puntuak urratu zirela. Hala ere, ZAEAk dioenez, gatazkaren xedea da zehaztea ea O SAK jasandako kuotak behar bezala jasanarazi zizkion Alemaniako hornitzaileak, GTG-k, 2010eko ekitaldian egindako eragiketetan, «auzigaia ez da sartzen Arbitraje Batzordearen eskumenen artean, (...) aztergaia ez baita lotura-puntu bat, ezta Ekonomia Itunaren interpretazioari eta aplikazioari zein zergadunen helbideratzeari buruzkoa ere» (bigarren alegazioa).

Beste alde batetik zera dio: Estatuko Administrazioan ustez bidegabeki sartu ziren BEZaren kuotak GFARI transferitzeko eskaria onartzeko, aztertu beharko lirateke ZAEAk ere eskumena baliatuz emandako administrazio-egintzak, O SAK eskatutako sarrera bidegabeen itzulketa ezestekoak; baina kontua da Arbitraje Batzordea ez dela gatazkan dauden Administrazioen egintzak berrikusteko organoa, eta beraz, bere eskumenetako bat ez da administrazio-egintzen deuseztasuna deklaratzeko, GFAk 16/2009 gatazkan GFAk planteatutako burutzapen-gorabeherari buruzko 1/2015 Erabakian eta 9/2008 gatazkaren 18/2011 Ebazpenean onartzen denaren arabera. Izan ere, azken batean, gatazka onartu ez izanaren ondorioz, zergaduna ez litzateke babesik gabe egongo, eta zergadun horrek beti izango lituzke beste bide batzuk, auzigai

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

diren administrazio-egintzen aurka administrazio-bidean edo jurisdikzio-bidean bere burua babesteko.

ZAEAk onarpenik ezaren aurkako eragozpenak azaldu zituen, eta GFA, bere azken alegazioetan, ez dator bat horrekin, eta Arbitraje Batzordeak eskumenik ez duela gezurtatzen du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazioaren arteko gatazka bat dugu hizpide, zalantzarik gabe. Gatazka horren xedea da zehaztea ea zergapeko bati behar bezala jasanarazi zitzaizkion bere hornitzailearekiko eragiketetan jasan zituen BEZaren kuotak; hori zehazteko, argitu behar da ea eragiketa horietan Espainiako establezimendu iraunkorren batek esku hartu zuen ala ez. Ez da gatazka abstraktua, baizik eta zehatza, eta zerga-arloko harreman indibidualei eragiten die: bi merkataritza-erakunderen eta BEZa ordainarazteko eskuduntzat jotzen diren bi zerga Administrazioen arteko harremanak.
- Gatazka hau Ekonomia Itunaren aplikazioaren ondorio da. Itun horren arabera, bi merkataritza-erakunde bi Administrazioek egindako BEZaren ordainarazpenaren mende daude, eta administrazio horiek, interpretatzeko irizpide diferenteekin, BEZa ordainarazteko eskumena dutela aldeztu dute. Honako hau da froga: Administrazio berberak bi erakundeei ordainarazteko eskumena izan balu, ez zen gatazkarik egongo; izan ere, orduan, irizpide bakarra aplikatu beharko liriateke. Bi kasuetan administrazio eskuduna Gipuzkoako Foru Aldundia izan balitz, «Gipuzkoako Foru Aldundiak uste izan balu GTG-k egindako eragiketetan Espainiako lurraldean kokatutako establezimendu iraunkor batek esku hartu ez zuela, orduan O SArI itzuliko zitzaizkiokeen GTG-k sartutako BEZaren kuotak».

Laburbilduta, GFAREN iritziz, Ekonomia Itunean egindako eskumen-banaketaren ondorioz «sortzen dira hizpide dugunaren antzeko egoerak. Egoera horietan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

zergadun batek ezin du lortu jasandako BEZaren itzulketa, eta horrek eragina dauka (...) zerga horren neutraltasunean, eta beraz, horiek Arbitraje Batzordearen eskumenen barruan daude».

Arbitraje Batzordeak eskumenik ez duela-eta O SAK aurkeztutako sarrera bidegabeen itzulketa-eskaria ezesten duten ZAEAREN administrazio-egintzak berrikusteko eta baliogabetzeko, GFAk aipatzen du Nafarroako Arbitraje Batzordearen 2014ko ekainaren 30eko ebazpena, GFAREN eta Nafarroako Gobernuaren artean honen antzeko kasu batean sortutako gatazkan emandakoa; eta zehazten duenez, bere eskariaren xedea ez da berrikustea, baizik eta Arbitraje Batzordeak «zehatz dezala Foru Aldundiak eskumenik al daukan GTG hornitzaileak O SARI bidegabeki jasanarazitako balio erantsiaren gaineko zergaren kuoten zenbatekoa biltzeko eta kobratzeko (...). (...) Arbitraje Batzordeak hori dioen ebazpena ematen badu, orduan aldi berean ZAEAK gai horretan ez du eskumenik izango, eta beraz, Administrazio horrek berrikusi beharko lituzke eskumenik gabe emandako administrazio-egintzak, eta ez Arbitraje Batzordeak (...), ordenamendu juridikoan xede horrekin aurreikusita dauden mekanismoak erabiliz»; hori funtsatzeko aipatzen du gure 6/2011 Ebazpena, otsailaren 21ekoa (44/2008 gatazka).

Horrez gain, Foru Aldundiak hauxe argudiatzen du: ZAEAK esandakoaren ondorioz, «Arbitraje Batzordeak ezin izango lituzke ebatzi Administrazioen artean planteatutako gatazka gehienak, zeinetan, jakina, ustez Ekonomia Ituna urratzen duten administrazio-egintzak egin baitira, hain zuzen ere Arbitraje Batzordera jotzeko arrazoi direnak».

Azkenik, Estatuko Administrazioak alegatzen du gatazka onartu ez arren zergaduna ez litzatekeela babesik gabe geratuko, zergadunak defentsarako beste bide batzuk dauzkalako; horrekin GFA ez dago ados, eta zera erantzuten du:

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

«Dagokigun gatazkan honako egoera hau dugu hondoan: zergadun batek, Administrazioen arteko interpretazio juridikoen diferentzia batengatik, jasanarazi zaion eta jasan duen BEZ baten itzulketa ezin du lortu, eta aldi berean, likidazio bat ordaindu behar du. Eta hori hala izanik, (...) gainera, ezin da esan zergadun horrek bere burua defendatu behar duenik bi Administrazioen aurrean (...); aitzitik, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak esku hartu behar du eta planteatutako gatazka ebatzi behar du. Gogoan izan behar da, aztergai dugun kasuan, eraginpean dauden zergadunek beren zerga-betebeharrak bete dituztela, eta haiei eragin dieten administrazio-egintzak Administrazioen arteko desadostasun batetik sortu direla, eta horrenbestez, desadostasun hori argitzeko eskumena duen organoak esku hartu behar du kasu honetan».

3.- Onartezintasunari buruzko auzian gatazkan dauden aldean jarrera laburbilduta azaldu ostean, gogora ekarri behar da Ekonomia Itunaren 66. artikuluan Arbitraje Batzordeari esleitzen zaizkion eginkizunak eskusiboak eta baztertzailak direla, eta Zerga Administrazioek Arbitraje Batzordera jo behar dutela euren eskumen-gatazkek ebazteko (Auzitegi Gorenaren 2014ko azaroaren 17ko epaia, 831/2013 errekurtsua, 4. OJ; Auzitegi Gorenaren honako epai hauek aipatzen dira: 2008ko uztailaren 10ekoa, 2399/2006 errekurtsua, 7. OJ; eta 2012ko azaroaren 12koa, 2304/2011 errekurtsua). Hala ere, administrazio-bide berezi hori Administrazioek ezingo dute erabili zerga itunduen interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren desadostasun guztiak Arbitraje Batzordera bidaltzeko; bereziki, alde interesdunek Administrazioaren egintzak administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean berrikusteko bide arruntetara joz konpondu ahal dituzten desadostasunak.

Bestalde, ez da bidezkoa gatazka abstraktuak piztea; beraz, esan behar da Zerga Administrazioen artean [*«banako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia- itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan (...) sor litezkeen auziak»* (Ekonomia Itunaren 66.Bat.b) artikulua] sortzen diren gatazken eskumen izaera ezin dela bereizi eskumenetan esku sartzea ekarri

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

duen administrazio-jarduketatik, errealitate diferente edo aparteko bat balitz bezala; horrek, jakina, gatazka konpontzea eragozten du, baldin eta lehenago gatazka sorrarazi duen administrazio-jarduera zehatza aztertu ez bada. Horregatik, eskumen-gatazka positiboetan beti egongo da zerga-harreman indibidualei dagokien administrazio-jarduketa bat, eta jarduketa hori aurretiaz Arbitraje Batzordeak baloratu beharko du, gatazka ebazteko besterik ez. Beste gauza bat da zergapekoek beraiek ados ez dauden Administrazioen jarduketaren aurka erreakzionatzea, administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean berrikusteko prozedura arrunten bidez, Administrazio horietako batek gatazka planteatzeko arbitraje-bidera jo baino lehen.

Azken hori ez da gertatu kasu honetan; beraz, zera ondorioztatu behar dugu: Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioan planteatutako gatazka, BEZa aplikatzearen ondorioz sortutako zerga-harremanei buruzko hori, Ekonomia Itunaren 66.Bat.b) artikularen bidez argitzen saiatzen bagara, Ekonomia Itunaren eskumen-banaketaren arabera, zuzen-zuzenean deklaratu behar da Arbitraje Batzorde honek eskumena duela gatazka aztertu eta ebazteko; beraz, ZAEAk bere eragozpenean azaltzen duen eskumengabetasuna ezetsi behar da, eta funtsean, GFAk horren kontra alegatutako arrazoiak aintzat hartu behar dira.

Gainerakoan, ondorio hori bat dator Auzitegi Gorenaren 2016ko urtarrilaren 26ko epaiak (916/2014 zenbakiko errekurtsua, 4. OJ) dioenarekin; eta duela gutxiagokoa den martxoaren 23ko 509/2018 epaiarekin (68/2017 zenbakiko errekurtsua); bi epai horiek ezetsi egin zituzten hurrenez hurren Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Estatuko Administrazioak Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen beste bi ebazpenen aurka aurkeztutako errekurtsuak.

- 4.- Horrez gain, kontuan hartu behar da Estatuko Administrazioaren iritzia – gatazka ez onartzeak ez luke zergadunaren babesgabetasunik eragingo (zergadunak beste babes-bide batzuk dauzkalako auzitan jarritako egintzen aurrean)–, eta horrekin lotuta, GFAk horren aurka duen jarrera; izan ere,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

GFAREN iritziz, Ekonomia Itunaren eskumen-banaketaren ondorioz «sortzen diren egoerek zergapekoari (...) eragozten diote jasandako BEZaren itzulketa lortzea (...)».

Jakina, auzi honen gaia ez da, zuzenean, –hala esan zen orduan– O SAK eskatutako BEZaren itzulketa, bi administrazioek «interpretazio juridiko diferentearengatik» ukatu zuten hori, baizik eta zehaztea ea administrazio horien artean zeinek daukan eskumena eragiketa horietan sortutako BEZA ordainarazteko eta biltzeko. Hala ere, erakundeak berak eta gatazka sustatzen duen Foru Aldundiak uste dutenaz bestela, beharrezkoa da Arbitraje Batzordeak esku hartzea administrazioen arteko desadostasuna ebazteko, baina ez BEZaren itzulketarako eskubidearen efektibotasuna ebazteko; izan ere, hori ez da arbitraje-prozedura honen ebazpenaren mendean jarri. Eta, arrazoi berberarengatik, baztertu behar da Ekonomia Itunaren eskumen-banaketarengatik zergapekoak «lortu ezin dezakeenik jasandako BEZaren itzulketa (...)».

Kontuan hartu behar da batez ere eskubidearen titularrak, kasu honetan BEZaren kenkarirako eta itzulketarako eskubidearen titularrak, izan behar duela interesa babesa sustatzeko, ordenamendu juridikoan xede horrekin ezarrita dauden bideetatik. Hala ere, espedienteko informazioarekin, O SAK orduan ez zuen hala egin. Ez zuen errekurtsorik aurkeztu GTG-k jasanarazitako eta erakundeak jasandako BEZaren kenketa ez onartzeko GFAk 2011ko urriaren 11n hartutako Erabakiaren aurka, eta besterik gabe, azaroaren 22an jasandako kuotengatik bidegabeki egindako sarrerak itzultzeko eskatu zion ZAEARI. Baina, geroago ere, uko egin zion Estatuko Administrazioari eskatutako bidegabeko sarreren itzulketaren (autolikidazioak zuzentzea) ustezko ezespenaren aurkako errekurtsua aurkezteari (ekainaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren 128.4 artikulua). Eta ez da arrazoizkoa zergadun bat behartzea «bere burua bi Administrazioen aurrean defendatzera, errekurtsuak aurkeztuz (...)», baina ez da arrazoizkoa, halaber, interesdunak azkenean bere burua benetan Administrazioen aurrean ez defendatzea.

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

Arbitraje Batzorde honek ez du ezer ere esan behar zergadunak aukeratutako defentsa-estrategiari buruz, jakina. Hala ere, strategi hori gorabehera, honako hau da kontua: gatazkan dauden Administrazioek Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15.2 artikuluan eta, orain, Ekonomia Itunaren 66.Hiru artikulua arabera ere jokatu izan balute, BEZaren itzulketarako daukan eskubidea lortuko zukeen, artikul horiek Europako araudiaren eta araudi hori eraentzen duen printzipioen arabera interpretatuta, eta hau kontuan hartuta: «Hainbat araubide eta horien behar bezalako kudeaketa eta funtzionamenduz arduratzen diren hainbat administrazio daudenean, barneko araudiaren gainean egin beharreko interpretazioa, itzulketa gauzatzeko eskumena duen lurralde-administrazioaren koordinazioa eta zehaztapena arautzen dituen neurrian, nahitaez bateragarria izan behar da Europar Batasuneko Antolamenduekin, eta hala ez bada, ondorioa izan behar da haren lehentasunarekin bateragarria ez den araua aplikatu ezin izatea (...)» (Auzitegi Gorenaren 2013ko urriaren 17ko epaia, 538/2012 errekurtoa, 3. OJ).

Hain zuzen ere, Ekonomia Ituna apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bitartez aldatu zenetik, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15.2 artikuluko hasierako aurreikuspen hura Itunaren 66. artikuluko atal berri batean, Hirugarren apartatuan txertatu zen O SA. Apartatu horrek dioenez, «Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera eramango dira, bestalde».

Beraz, antza denez, ez zegoen aitzakiarik BEZaren kenkarirako eta itzulketarako eskubidea baliatu zuen zergapekoa (O SA) ordura arte kargapetzen zuen Administrazioa (kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundia) kenkari eta itzulketa horretaz arduratzeko, eskumen-gatazka sortu eta gero, kalterik egin gabe arbitraje-prozeduraren ebazpenak eragindako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

Administrazioek, egokia izanez gero, egin beharreko zerga-arloko zuzenketei eta konpentsazioei. Are gehiago, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren doktrina ikusita. Biak bat datoz; izan ere, onartzen dutenez, BEZaren itzulketarako eskubidea «ezin du baldintzatu, ezta kaltetu ere (...) estatu barneko araudiak daukan konplexutasunak, zerga kudeatzeko ardura duten administrazioen arteko harremanak bideratu eta koordinatzean agerian jartzen den konplexutasun horrek (...)» (Auzitegi Gorena, 2013ko urriaren 17ko epaia, 538/2012 zenbakiko errekurtsua, 3. OJ). Ildo beretik doaz Auzitegi Gorenaren 2013ko apirilaren 11ko epaia (17/2012 zenbakiko errekurtsua, 3. OJ) eta 2014ko martxoaren 31koa (1547/2013 zenbakiko errekurtsua, 3. OJ).

5.- Gatazkaren funtsean sartuta, hau ikusten da: eztabaidagai den zerga-bilketaren administrazio eskuduna zein den zehazteko, aldeztatik zehaztu behar da O-k jasandako BEZaren kuotak behar bezala jasanarazi zizkion hornitzaileak, GTG-k. Eta hori zehazteko, era berean, argitu behar da eragiketa horietan Alemaniako sozietatearen Espainiako establezimendu iraunkorrek esku hartu al zuen, BEZa arautzen duen 37/1992 Legearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 84. artikuluko Bi apartatuan xedatuta dagoenaren arabera.

GFAREN ustez, GTG-k bere eragiketak zergaren aplikazio-lurraldean ez ditu egin O SARI egindako ondasun-emateetan esku hartu zuen establezimendu iraunkor baten bitartez. Beraz, bere ustez, GTG-k jasanarazitako eta O SAK jasandako kuotak O SAK ezin ditu kendu, eta O SAK zuzenean egindako erkidego barruko eskuraketa eragiketa bakar baten moduan tributatu behar zuten, eta beraz, ordainarazpena Foru Ogasunari dagokio, Ekonomia Itunaren 27. artikulua arabera.

ZAEAREN ustez, aldiz, GTG-k Espainian establezimendu iraunkorra dauka eta establezimendu horrek egindako eragiketetan esku hartu zuen, eta ondorioz, sortutako BEZaren kuotak behar bezala jasanarazi ziren, baita Estatuko Administrazioan sartu ere.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

6.- Gatazka ebazteko aplikatu beharreko araudia Ekonomia Itunaren 27. Bat. Hirugarrena eta Laugarrena artikuluan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 37/1992 Legearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 16.2, 69.Hiru eta 84. Bat 1. eta 2. a) eta Bi artikuluetan agertzen da. Artikulu horiek honako hau ezartzen dute:

Ekonomia Itunaren 27. artikulua hau xedatzen du:

«27. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

(...) Hirugarrena. Aurreko urtean 7 milioi eurotik gorako eragiketa kopurua lortu ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zergak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga-egoitza lurralde erkidean baldin badute; zerga-egoitza Euskadin baldin badute, berriz, dagokien foru-aldundian.

(...)

Lau. Europako Erkidego barruko ondasunen trafikoarekin zerikusia duten eragiketen ziozko zerga, artikulua honetako hurrengo apartatuetan aipatuko diren kasuetan izan ezik, aurreko Bat apartatuan azaldutako eran ordainaraziko da».

Abenduaren 28ko 37/1992 Legeak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak honako hau xedatzen dute:

«16. artikulua. Batasunaren barneko ondasun eskuraketen pareko eragiketak.

Batasunaren barneko ondasun eskuraketen pareko eragiketa kostubidezkotzat hartuko dira:

(...) 2. Enpresaburu edo profesional batek zergaren aplikazio-lurraldean garatutako jarduketei enpresaburu edo profesional horrek berak banatu edo garraiatutako ondasunari dagokion zerga aplikatzea, baita enpresaburu edo

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

profesional horrek berak bere kontura eta bere enpresa- nahiz lanbide-jardunean ondasuna beste estatu kide batean ekoiztu, erauzi, eraldatu, erosi edo inportatu badu ere».

«84. artikulua: Subjektu pasiboak

Bat. Zergaren subjektu pasiboak izango dira:

1. Enpresaburuak edo profesionalak diren pertsona fisiko zein juridikoak, zergari lotutako ondasun-salmentak edo zerbitzu-prestazioak egiten dituztenean, ondorengo zenbakietan xedatutako kasuetan izan ezik.

2. Zergari lotutako eragiketen hartzaile diren enpresaburuak edo profesionalak, jarraian aipatzen diren kasuetan:

a) Eragiketa horiek zergaren aplikazio-lurraldean finkaturik ez dauden pertsona edo entitateek egiten dituztenean (...)

Bi. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, subjektu pasiboak zergaren aplikazio-lurraldean finkatuta daudela ulertuko da lurralde horretan beren jarduera ekonomikoaren egoitza, helbide fiskala edo *establezimendu iraunkor bat dutenean, eta establezimendu iraunkor horrek zergari lotutako ondasun-salmentetan edo zerbitzu-prestazioetan esku hartzen duenean.*

Establezimendu iraunkorrak ondasun-salmentetan edo zerbitzu-prestazioetan esku hartzen duela ulertzen da bere ekoizpen-faktore materialak eta giza alorrekoak, edo horietako batzuk, antolatzen dituztenean salmenta edo prestazio horiek aurrera eramateko».

Bestalde, gatazkan dauden Administrazioetako batek bere Betearazpen Erregelamenduari eman nahi dion garrantzia ikusita, Kontseiluaren 2006/112/EE Zuzentarauak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema erkideari buruzkoak, 192.bis artikuluan zera xedatzen du:

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

«Sekzio honen ondorioetarako, subjektu pasibo batek establezimendu iraunkorra badu zerga sortzen den estatu kideko lurraldean, ulertuko da subjektu hori ez dagoela kokatuta estatu kide horretako lurraldean, baldintza hauek betetzen direnean:

- a) estatu kide horretako lurraldean zergapetutako ondasun-emate bat edo zerbitzu-prestazio bat egitea;
- b) zerbitzu emaileak establezimenduren bat baldin badu estatu kide horretako lurraldean, establezimendu horrek eskurik ez hartzea ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio horretan».

Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduak [*«BEZaren sistema aplikatzean barneko merkatuaren helburuarekin bat etortzeko, merkatu horren funtzionamendu egokiarekin bateraezinak diren desadostasunak gertatzen diren kasuetan»* (2. oinarria) eta *«BEZaren gaur egungo sistemaren aplikazio uniforme bermatzeko, horretarako 2006/112/EE Zuzentarauaren aplikazio-xedapenak ezarriz, bereziki subjektu pasiboari, ondasun-ematei eta zerga-egitateak egiteko lekuari dagokienez»* (4. oinarria)], bere 53. artikuluan honako hau dio:

«1. 2006/112/EE Zuzentarauaren 192.bis artikulua aplikatzeko kasu honetan *bakarrik hartuko da kontuan subjektu pasiboaren establezimendu iraunkorra: esku-hartzen duen ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak burutzea ahalbidetuko dien giza baliabideek eta bitarteko teknikoek eratutako egitura egoki bat nahiko iraunkortasunez duenean.*

2. Subjektu pasibo batek establezimendu iraunkorra badu BEZa zor den estatu kideko lurraldean, *ulertuko da establezimendu horrek ez duela eskurik hartzen ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan 2006/112/EE Zuzentarauaren 192.bis artikuluko b) letran jasotako zentzuan, non eta subjektu pasiboak ez dituen baliatzen establezimendu iraunkorraren baliabide tekniko eta pertsonalak zergapetutako ondasun-ematearekin edo zerbitzu-prestazioarekin datozen*

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

bestelako eragiketak estatu kide horretan egiteko, emate edo prestazio hori egin baino lehen edo egitearekin bat.

Establezimendu iraunkorraren baliabideak administrazio lan osagarriak egiteko bakarrik erabiltzen badira –kontabilitatea eramateko, fakturatzeko eta kredituak kobratzeko–, ez da ulertuko baliabide horiek erabili direnik ondasun-emate baten edo zerbitzu-prestazio baten helburuetarako.

Hala ere, *faktura egiten bada establezimendu iraunkorraren estatu kideak BEZaren ondorioetarako emandako identifikazio zenbakiarekin, ulertuko da establezimendu horrek parte hartu duela estatu kide horretan egindako ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan, salbu eta kontrakoa frogatzen bada».*

Hala ere, Erregelamenduaren Hitzaurreak berak dioenez, *«aplikatu beharreko xedapen horiek juridikoki lotesleak dira Erregelamendu hau indarrean jarri zen datatik, eta ez dute aurretiaz epaitzen legeriaren eta Estatu kideek lehenago egindako interpretazioaren balioa»* (2. oinarria).

7.- Kasu honetan, gatazka sustatzen duenak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, zalantzak ditu, GTG sozietateak BEZaren Legearen 69. Hiru artikuluan ezarrita dagoenaren ondorioetarako zergaren aplikazio-lurraldean establezimendu iraunkorrik ote duen, baina ez du guztiz auzitan jartzen. Horregatik, eztabaidaren funtsa, eta eztabaidagai diren eragiketen tributazio-araubideari buruzko desadostasun bakarra, egitatezko auzi bat da, eta arrazoi berberarengatik, froga-izaerako auzi bat: zehaztea ea, Alemaniako GTG hornitzaileak Espainian daukan establezimendu iraunkorrek (ordezkaritza-bulegoa) benetan esku hartu al zuen 2010eko ekitaldian Espainiako O SA erakundearekin egindako eragiketetan.

Espainiako ordezkari-tza-bulegoa kudeatzeko eta zuzentzeko GTG-k ahalordetutako pertsonak eragiketa horietan benetan esku hartu zuen ala ez argitzeko, kontuan hartu behar dugu 37/1992 Legearen eta BEZari buruzko 102/1992 Gipuzkoako Foru Dekretuaren 84.Bi artikuluko azken paragrafoak

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

ematen duen orientazio-irizpidea: *«Establezimendu iraunkorrak ondasun-salmentetan edo zerbitzu-prestazioetan esku hartzen duela ulertzen da bere ekoizpen-faktore materialak eta giza alorrekoak, edo horietako batzuk, antolatzen dituenen salmenta edo prestazio horiek aurrera eramateko»*; antza denez, arrazoizkoa da uste izatea ZAEAk egiaztatu beharko lukeela, egitate positiboa den aldetik, Alemaniako hornitzailearen establezimendu iraunkorrak O SAr 2010eko ekitaldian egindako ondasun-emateetan esku hartu zuela.

Hala ere, ez da hala izan. ZAEAk, bere alegazio-idazkian, establezimendu iraunkorrek egindako eragiketen BEZaren tributazioari buruzko arauen berri ematen du, eta jarraian, egiaztatutzat jotzen du *«GUPA sozietateak Espainian establezimendu iraunkorra daukala (...)*». Horretarako, Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko (EB) 282/2011 Betearazpen Erregelamenduaren 53.2 artikuluan jasotako *iuris tantum* presuntzioan oinarritzen da –kontuan hartuta zein datatan jarri zen indarrean, zeharo aplikaezina da kasu honetan (hirugarren alegazioa)– eta idazki batean. Idazki horretan, GTG sozietatearen ordezkariak dioenez, *«zergaren aplikazio-lurraldean eragiketak egin ditu establezimendu iraunkor baten bitartez, BEZaren ondorioetarako (...)*» (laugarren alegazioa). Baina ZAEAk gauza bat isiltzen du: idazki horretan bertan, GTG-ren ordezkariak onartu egin zuen *«Espainiako ordezkari-tzabulegoaren jarduera dela, besterik gabe, informazioa biltzea, publizitatea egitea, informazioa ematea edo jatorrizko enpresarentzat jarduera osagarriak edo prestaketakoak egitea (...)*»; GFAk ohartarazten duenez, inguruabar horregatik ezinezkoa da uste izatea bulego horrek O SArekin egindako eragiketetan zuzenean esku hartzen zuenik; izan ere, Estatuko Administrazioak aipatzen duen manuan bertan xedatuta dagoenaren arabera, *«establezimendu iraunkorraren baliabideak administrazio lan osagarriak egiteko bakarrik erabiltzen badira –kontabilitatea eramateko, fakturatzeko eta kredituak kobratzeko–, ez da ulertuko baliabide horiek erabili direnik ondasun-emate baten edo zerbitzu-prestazio baten helburuetarako»* (EB/282/2011 Betearazpen Erregelamenduaren 53.2 artikulua).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

Beraz, alde batetik, ZAEAREN ustez egiaztatuta dago Espainian GTG-ren establezimendu iraunkor bat dagoela, sozietatearen ordezkariak hala esan duelako; eta bestetik, frogatuzat jotzen du establezimendu iraunkor horrek 2010eko ekitaldian O SAREkin egindako eragiketetan esku hartu zuela, besterik gabe partzialki aipatzen den eta *ratione temporis* aplikatu ezin den manu batean ezarritako presuntzio bati helduta. Eta hala eta guztiz ere ez ditu ezeztatzen, ezta aurkaratzen ere, GFAk prozeduraren xede diren eragiketetan establezimendu iraunkor batek esku hartu ez zuela frogatzeko ahaleginean ekarritako agiriak.

Hortaz, kasuko egitateen inguruabarrak, alegazioak nahiz bi Administrazioek aurkeztutako datuak multzoan baloratuta, Arbitraje Batzorde honek honako hau ondorioztatzen du: ez dago froga-elementurik, auzigai diren eragiketetan Alemaniako GTG hornitzailearen Espainiako establezimendu iraunkor batek BEZaren xederako esku hartu zuela egiaztatuzat joa daitekeela erakusten duenik; beraz, subjektu pasiboaren inbertsioari heldu behar zaio, 102/1992 Foru Dekretuaren 84. Bat.2.a) artikuluan aurreikusitakoari. Horrenbestez, gatazka sustatu duen Foru Aldundiak dauka eskumena O SAREN eta haren Alemaniako hornitzailearen, GTG-ren artean 2010eko ekitaldian egindako eragiketetan sortu zen BEZA ordainarazteko eta biltzeko, Ekonomia Itunaren 27.Bat, Hirugarrena eta Laugarrena artikuluan eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duenaren 84.Bat 1. eta 2. a) artikuluan xedatuta dagoena aplikatuta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2013	R5/2018	2018-6-28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa.

1.- Ezestea Estatuko Administrazioak aurkeztutako eragozpena, gatazka onartezina izateari buruzkoa, eta Arbitraje Batzordeak aztertzeko eta ebazteko eskumena daukala deklaratzeko.

2.- Deklaratzea Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumena daukala O SArI GTG hornitzaileak 2010eko ekitaldian jasanarazitako eta ZAEAn sartutako balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak ordainarazteko eta biltzeko.

3.- Ebazpen hau betearazte aldera, ZAEAk indargabetu egin beharko du 2013ko uztailaren 3ko Erabakia, zeinaren bidez ezetsi zuen bidegabeko sarreraren itzulketari buruz O SArI aurkeztutako eskaria.

4.- Erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta gatazkek ukitutako erakundeari jakinaraztea.